



SICUEko IKASLEARENTZAKO JARRAIBIDEAK

Eman zaizun mugikortasuna onartu eta gero, edozein momentutan inprima ditzakezu behar dituzun dokumentuak, GAUR (UNIBERTSITATE TRUKEA) profileko **ZIURTAGIRIAK** botoia erabilita. **XEHETASUNA** botoiaren bitartez, aipaturiko mugikortasunaren jarraipena egin dezakezu. Horretarako, onartutako mugikortasuna hautatu behar duzu. Egonaldirako behar dituzun dokumentuak ere deskargatu ahal izango dituzu.

Behin zure helmuga zein den dakizunean, zure ikastegiko koordinatzailearekin harremanetan jarri beharko duzu ikasketa gaiekin zerikusia duten xehetasunak eztabaidatzeko eta GAUR aplikazioaren bitartez **AKADEMI ONESPENERAKO AURRETIKO KONPROMISOA/KONPROMISO AKADEMIKO**A betetzeko (prozesua bizkortzeko epeka egin behar bada, paper formatuan egin daiteke aurretiaz). Horretarako, kontuan hartuko dira ikaslearen betebeharretan adierazitako jarraibideak, elkartruke programetan parte hartzeko arauak eta mugikortasun programaren deialdiko oinarriak.

Izapideak behar bezala egin eta mugikortasun programan parte hartu ahal izateko, adierazitako epeetan bidali beharko dituzu jarraian aipatuko dizkizugun dokumentuak. Dokumentu horietakoren bat ez aurkezteak programan parte hartzeko eskubidea galtzea eragin dezake, edota ikasketa kontratua nahiz dirulaguntzaren kontratua ezeztatzea, baita hurrengo ikasturtean trukea eskatzeko aukera galtzea ere:

1.- EGIAZTAGIRIA: (gaztelania eta euskara). (Zure GAUR profileko **ZIURTAGIRIAK** botoiaren bitartez inprima dezakezu).

Egonaldia onartu dela frogatzeko dokumentua da egiaztagiria. Ikasleak berak erabili eta artxibatzekoa da. Horregatik, **ez da Nazioarteko Harremanen Bulegora (NHB) bidaltzen.**

GARRANTZITSUA: EHUko IKASLEEN ARDURA DA HELBURUKO ERAKUNDEAN EGONALDIAREN HASIERAKO ETA AMAIERAKO ZIURTAGIRIAK ESKATZEA ETA NAZIOARTEKO HARREMANETAKO BULEGORA BIDALTZEA (sicue@ehu.eus). **ZURE UNIBERTSITATEAK BALDINTZA HORI NAHITAEZ BETE BEHAR DU.**

ZIURTAGIRIAK:

2.- HELDUERA ZIURTAGIRIA: (Zure GAUR profileko **ZIURTAGIRIAK** botoiaren bitartez inprima dezakezu, edo "Dokumentazioa" atalean deskargatu)

Helburuko unibertsitatean egonaldia hasi eta, gehienez, hilabeteko epean, **F INPRIMAKIA: HELDUERA ZIURTAGIRIA** bidali behar duzu EHUren Leioako Nazioarteko Harremanen Bulegora (sicue@ehu.eus), bertan zehatz mehatz adierazita zer egunetan hasi den egonaldia erakunde horretan. Ziurtagirian ondo jasota egon behar dira data eta helburuko unibertsitateko arduradunaren sinadura digitala. Gainera, inprimakia **ordenagailuz eta letra larritz** bete behar da.

Ikasleak atzerriko egonaldia hasi ostekoa izan behar du ziurtagirian jasotako datak.



3.- EGONALDI AMAIERAREN ZIURTAGIRIA: (Zure GAUR profileko **ZIURTAGIRIAK** botoiaren bitartez inprima dezakezu, edo "Dokumentazioa" atalean deskargatu)

Helburuko unibertsitatean egonaldia bukatu eta, gehienez, hilabeteko epean, **INPRIMAKIA: EGONALDI AMAIERAREN ZIURTAGIRIA** bidali behar duzu EHUn Leioako Nazioarteko Harremanen Bulegora (sicue@ehu.eus), bertan zehatz mehatz adierazita zer egunetan hasi eta amaitu den egonaldia. Ziurtagirian ondo jasota egon behar dira data eta helburuko unibertsitateko arduradunaren sinadura digitala. Gainera, inprimakia ordenagailuz eta letra larritz bete behar da.

Ikasleak atzerriko egonaldia hasi ostekoa izan behar du ziurtagirian jasotako datak.

DESKARGATZEKO DOKUMENTAZIOA (PDF FORMATUAN): (horietako batzuk egonaldian zehar izango dituzu eskuragai, eta gerta daiteke besteren bat ere gehitzea).

1.- JARRAIBIDEAK:

Irakurri arretaz.

2.- IKASLEAREN BETEBEHARRAK:

Garrantzitsua. Irakurri arretaz.

3- KONPROMISO AKADEMIKOA ETA MATRIKULA EGITEA

Garrantzitsua. Irakurri arretaz.

4.-AKORDIO AKADEMIKOAREN TRUKE-EGONALDIA MURRIZTU EDO LUZATZEKO **ERANSKINA – C INPRIMAKIA**

Zure GAUR profilaren bidez deskargatu dezakezu Dokumentazioa atalean edo web gunean: 10 puntua Egonaldiaren jarraipenari buruzko dokumentazioa. Eranskinean bertan ordenagailuarekin bete (Ez da onartzen eskuz betetako eskaerarik).

OHARRA: Egonaldiaren iraupena aldatu nahi duten ikasleek baino ez dute aurkeztu behar agiri hau.

Martxoaren 12tik aurrera (edo lehen esleipenean baldintzak onartzen direnetik), ahalik eta azkarren izapidetu eta bidali beharko duzu Leioako ORren helbidera sicue@ehu.eus, **Akordio Akademikoaren truke-egonaldia murriztu edo luzatzeko ERANSKINA- C inprimakia**. Eranskin horretan, ikasleak bere datuak beteko ditu, X batez adieraziko ditu lauhilekoa eta destinoko unibertsitateko egonaldia aldatzearen arrazoia, eta eskatutako egonaldiko destinoko irakasgaiak kontsultatu dituela baieztatuko du bere sinadura digitalarekin. Gainera, aldaketa hori egiteko baimena eskatuko dio EHUko zentroko koordinatzaile, eta horrek digitalki sinatuko du eranskin hori, erreserbatutako koadroan.

Nahitaez egin beharreko izapidea da, GAUR aplikazioan egonaldiaren iraupena aldatzeko.



Urratsak:

- Lehenengo pausoa, eranskinean datuak WORD betetzea (**Ez da onartzen eskuz betetako eskaerarik**) eta PDF bihurtzea (artxiboa – Adobe PDF gisa gordetzea) sinadura digitala sartzeko (ikusi sinadura elektronikoaren jarraibideak: [EHUko Ikasleak - Nazioarteko Harremanak - EHU](#))
- Bigarren urratsa, eranskina EHUko zure zentroko (jatorrizko) koordinatzaile bidaltzea, SICUE egonaldiaren iraupena aldatzeko eskatzeko. koordinatzaileak bere sinadura digitalarekin emango du aldaketa horretarako baimena: [Contacto - Relaciones Internacionales - EHU](#)
- Hirugarren urratsa, ikasleak eta EHUren koordinatzaileak (jatorrizkoak) digitalki sinatu ondoren, eranskina postara bidaltzea da sicue@ehu.eus (Leioako ORI)

****Apirilaren 1ean (barne) amaituko** da jatorrizko eta ikaslearen arteko koordinatzailearen sinadurarekin **entregatzeko epea**.

Besterik gabe, akademia-akordioa helburuko koordinatzaile bidaltzeko adierazitako epean (Irakurri Deialdian. 12. oinarria – **AKORDIO AKADEMIKOA: Epeak**). Ikasleak akordio akademikoa **eranskin honekin** bidali beharko du, destinoko koordinatzaileak horretarako gordetako koadroan sinatu dezan

OHARRA: Epez kanpo ez da egonaldia aldatzeko eskaririk onartuko. **Salbuespen gisa**, behin helburuko unibertsitatean mugikortasuna hasita, egonaldia laburtzea onartu ahalko da, baldin eta **idazki** baten bidez (**WEB- SICUE deialdia - 10. puntua - Egonaldiaren jarraipenaren dokumentazioa - Inprimakia: eskaera epez kanpoko**) justifikatzen bada arrazoia, behar bezala argudiatuta eta **behar den dokumentazioa** aurkeztuta: osasun ziurtagiria, praktiken edo lanen kontratua, edo bestelakoak... Gainera, **Akordio Akademikoaren truke-egonaldia murrizteko ERANSKINA (C inprimakia)** erantsi beharko da, ikasleak eta bi koordinatzaileek behar bezala beteta. Hala eginez gero, Errektoreordetzak jaso egingo du epez kanpoko eskaera, soilik behar bezala justifikaturik badago; eta, hura aztertu ondoren, onartu edo atzera botako du.

**** SINADURA ELEKTRONIKORAKO BakQ** edukitzea komeni da (NAN elektronikoarekin edo pertsona fisikoaren FNMT ziurtagiri digitalarekin ere egin daiteke). Lehen urratsa: **BakQ eskatzea/aktibatzea**, ziurtagiri digitala izateko; bigarren urratsa: BakQ txartel birtuala ordenagailuan **deskargatzea**, sinatu ahal izateko (mugikorrek ez du balio); eta hirugarren urratsa: inprimakian **sinadura digitala sartzea**, **Adobe Acrobat Reader DC** programaren bitartez –Gida–.

GARRANTZITSUA:

MAIZ BEGIRATU ZURE MUGIKORTASUN ESKAERAREN EGOERA GAUR PROFILAREN BITARTEZ (UNIBERTSITATEKO ELKARTRUKA) ETA ERREKTOREORDETZAREN WEB ORRIAN.

Nazioarteko Harremanen Bulegoa
Sarriena auzoa, z.g. Biblioteka, 2. solairua
48940 Leioa (Bizkaia)
Tel.: 94 601 2089
sicue@ehu.eus